ERAIKUNTZA ETA ERAISPENEKO HONDAKINAK (EEH) KUDEATZEKO ZERBITZUAREN PRESTAZIOA

PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea obra txikietako eraikuntza eta eraispen hondakinak (EEH) kudeatzea da, garbiguneetan edo Debagoienako Mankomunitatearen bestelako bilketa zerbitzuetan jasotakoak, ondoren agregakin birziklatu edo bestelako eraikuntza material bihurtzeko.

Mankomunitatea arduratuko da eraikuntza eta eraispen hondakinak enpresa adjudikaziodunaren instalazioetara garraiatu eta bertan deskargatzeaz. Horrenbestez, kontratu honen xedeak ez du instalazio horietara iristeko garraioa barne hartzen.

2. MATERIALEN KALITATEAK ETA LOTEAK

Kontratu honen barruan kudeatu behar diren materialak eraikuntza eta eraispen hondakin (EEH) ez arriskutsuak izango dira, etxeko eraikuntza eta konponketa obra txikietatik eratorritakoak. Hondakin hauek etxeko hondakin gisa definitu dira Ekonomia zirkularrerako Hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 7/2022 Legearen arabera.

Bi lizitazio lote ezarri dira, material kalitate hauei dagokienez:

- **1. LOTEA.** HARRI HONDAKIN HAUTATUAK
    - **Kalitatea:** kalitate altuko materiala, agregakin birziklatu edo bestelako eraikuntza material bihurtzeko.
    - **LER kodea**: 17 01 07.
    - **Materialak**: eraikuntzako eta eraisketako hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuaren 9. artikuluan definitutako harri izaerako EEHi dagokie. Atal honetan sartzen dira hormigoizko hondakinak, adreiluak, teilak, zeramika materialak, harriak, harkaitzak eta antzekoak (konketak, komunak, azulejuak, baldosak, sukaldeko gainaldeak, etab.). Metalezko zenbait elementu ere barne har daitezke, lotura estua dutelako harri izaerarekin, esaterako txorrota metalikoak, hormigoizko ferralla elementuak, etab.
    - **Material desegokien maila:**
        - I. motakoa: ≤ %5 pisuan.
        - II. motakoa: ≤ %1 pisuan.

- **2. LOTEA.** EEH EZ ARRISKUTSU NAHASTUAK

    - **Kalitatea:** kalitate baxuagoko materiala, agregakin birziklatu edo bestelako eraikuntza material bihurtzeko. Helburu honetarako garbiketa eta sailkapen zehatzagoa egin behar da.
    - **LER kodea**: 17 09 04.
    - **Materialak:** maila handiagoan hautatu ezin izan diren materialei dagokie, erabiltzaileak jatorritik nahasketa maila altuarekin entregatu dituelako; horrez gain, 1. loteko kalitaterako baztertutako EEH ez arriskutsuei ere badagokie. Kalitate honetan jasotzen dira, oro har, harri izaerako EEHak, 1. loterako definitutakoen modukoak baina beste EEH ez arriskutsu batzuekin nahastutakoak.
    - **Material desegokien maila:**
        - I. motakoa: %5 baino gehiago pisuan.
        - II. motakoa: ≤ %1 pisuan.

Material desegokien motak:

- **I. mota**. EEH ez arriskutsuei eta harri izaerarik ez dutenei dagokie, birziklatzeko garbiguneetan gaika biltzen EZ direnak. Oro har, motrailu hondarrak, emokadurak, luzitzeak eta antzekoak, igeltsua, kartoi igeltsuko plakak, beira laua, etab. izaten dira. Garraioan I. motako desegoki gisa beste material batzuk ere egon daitezke, obra txikietan gutxiagotan sortzen direnak, esaterako isolamendu materialak, beira zuntzez indartutako plastikoa, asfaltozko geruza, etab.

- **II. mota** Hondakin ez arriskutsuak eta harri izaerarik ez dutenak dira, garbiguneetan gaika biltzen direnak birziklatzeko: egurra, papera/kartoia, metalak (salbu eta harri izaeradun materialen artean onargarritzat jotakoak), PVC edo beste plastiko edo hondakin organiko batzuk.

Erabiltzaileek garbiguneetan entregatzen dituzten materialak askotarikoak direnez, baliteke akats baten ondorioz eta salbuespen alditan garraio lanetan hondakin arriskutsuren bat sartzea; kasu horretan substantzia arriskutsuak biltegiratzeko ontziak izaten dira (itsasgarri edo zigilatzaileen tutu hutsak, pintura lata edo ontzi hutsak, etab.). Garraio lan batean hondakin arriskutsuen presentzia antzemanez gero, adjudikaziodunak berehala eman beharko dio horren berri Mankomunitateari, hondakin horiek identifikatuz eta zenbatuz, argazkiak aurkeztuz. Mankomunitateak beharrezkotzat jotako egiaztapenak egin ahal izango ditu gorabehera horren inguruan, baita esleipendunaren instalazioetan ere. Mankomunitatearen garraio batean entregatutako hondakin arriskutsu bat dela egiaztatuz gero, adjudikaziodunak baztertu egingo du, eta Mankomunitateak hartuko du kudeaketa horren ardura. Fibrozementu elementuren bat edo amiantoa duen zerbait agertuz gero, horretarako baimendutako enpresa baten bitartez kudeatuko da; Mankomunitateak ez du inolaz ere ez elementu hori manipulatuko edo adjudikaziodunaren instalazioetatik material hori kenduko, baliabide propioekin.

Mankomunitateak eskubidea du garbiguneetan edukiontziak betetzeko prozesuaren jarraipen fotografikoa egiteko sistema bat ezartzeko. Horren bitartez, adjudikaziodunak erreklamazioa egin izanez gero entregatutako materialen kalitateari dagokionez, balorazio elementu modura erabili ahalko du, adjudikaziodunak aurkeztutako frogekin batera".. Beharrizana aski justifikatzen bada, Mankomunitateak entregatutako materialen karakterizazio lanak egin ahalko ditu, desadostasunak ebazteko, instalazio propioetan edo adjudikaziodunaren instalazioetan.

3. BALDINTZA TEKNIKOAK

Jarraian, 2021ean garbigune bakoitzean jasotako eraikuntza- eta eraispen-hondakinen tonen banakapena adierazten da.

Obra Hondakina	GBN Arrasate	GBN Bergara	GBN Oñati	GBN EPELE	GUZTIRA
Garbia (Lote 1)	1.045.740	42.200	260.640	0	1.348.580
Zikina (Lote 2)	684.460	704.740	234.960	9.780	1.633.940
GUZTIRA	1.730.200	746.940	495.600	9.780	2.982.520
Balorizazioa %-tan	60,44%	5,65%	52,59%	0,00%	45,22%

Kontratistak betebehar hauek bete beharko ditu:

1. Kontratuaren xede diren materialak jasoko dituen instalazio bat Mankomunitatearen esku jartzea, EEHak kudeatzeko baimendutakoa administrazio klausula berezien pleguan kaudimen teknikoa egiaztatzeko ezarritako baldintzetan. Instalazio horiek Debagoiena[1] eskualdean kokatuta egon beharko dira, eta egokiak izan beharko dira Mankomunitatearen edo enpresa kontratisten kamioi mota guztien deskargak eta pisaketak egiteko. Mankomunitateak, kontratua sinatu aurretik, adjudikaziodunaren instalazioetara bisita egingo du, kontratua aurrera ateratzeko beharrezkoak diren baldintzak betetzen dituela bermatzeko.

2. Instalazio hartzaileak baskula legeztatua eta behar bezala kalibratua eduki beharko du, indarrean dauden kalibrazio ziurtatuekin kontratuaren iraupen osoan, eta materialak bertan pisatuko dira; fakturaziorako oinarri izango da. Baskulak kasuan kasuko pisatze tiketa emango du pisaketa bakoitzean. Adjudikaziodunak, kontratuaren hasieran eta horrelako instalazioetarako legez ezarritako maiztasunarekin, kasuan kasuko egiaztatzeko kontrol metrologikoen ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu Mankomunitatearen aurrean, organo eskudunak emandakoak. Mankomunitateak egiaztatzeko pisatze kontraesankorrak egiteko eskubidea izango du, baita baskula aldatzeko eskubidea ere, komenigarritzat joz gero. Nolanahi ere, fakturazioaren oinarri izango diren pisatze lanak egiteko baskulak beti izango dira baskula legeztatuak, eta indarrean dagoen ziurtagiria eduki beharko dute beti.

3. Deskargetarako ohiko ordutegia astelehenetik ostiralera artekoak izango dira, 09:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 18:00etara. Hala ere, eguerdian deskarga puntualak egiteko beharrizana sor daiteke. Horretarako, adjudikaziodunak bermatu egin behar du Mankomunitateak edo enpresa kontratistak materialak harrera instalazioan deskargatu eta pisatzeko aukera izango dutela, tiketa emanez, gutxienez ordutegi honetan: astelehenetik ostiralera 09:00etatik 18:00etara. Ohiko ordutegitik kanpo deskargak egin behar izanez gero, aldez aurretik adjudikaziodunari abisua igorri beharko zaio.

4. Adjudikaziodunak bermatu egin beharko du pisatze eta deskarga lanak gehienez 15 minutuko epean egiten dituela, eta, horretarako, instalazioak behar bezala mantentzen dituela eta langileek atzerapenik gabe hartzen dituztela Mankomunitatearen edo enpresa kontratistaren garraioak.

5. Garraioak 20-24 m^3-ko gaitasuneko edukiontzietan egiten da normalean, Amplirrol motako kako sistemarekin. Edukiontzien dimentsioak honako hauek dira: 6 m luze x 2,5 m zabal x 1,6 m altu. Nolanahi ere, Mankomunitateak materialak adierazitako ez bestelako edukiera duten edukiontzietan aurkezteko aukera izango du, eta/edo karga eta garraio sistema desberdinetan; horrek ez du inolako aldaketarik eragingo kontratuaren baldintzetan.

[1] Leintz-Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Oñati, Bergara, Elgeta eta Antzuola udalerriak.

6. Materialak, oro har, iraulkiz deskargatuko dira; hala ere, kasu zehatzetan materialak deskargatzeko laguntza behar izanez gero, adjudikaziodunaren ardura izango da beharrezko langileak edo makineria ematea. Ondoren plegu honetan definitu den moduan, kasu zehatz batzuetan edukiontzi betea adjudikaziodunaren instalazioetan entregatuko da, eta hutsik dagoen edukiontzi bat kargatuko da.

7. Lote bakoitzerako definitutako kalitate irizpideak betetzen duen material oro onartu eta tratatzea. Lizitatzaileek alderdi hori kontuan hartu beharko dute eskainiko dituzten prezioak kalkulatzeko.

8. Kudeatzaile gisa dagokion neurrian, entregen kontrol eta jarraipen dokumentuak (DSC) eta onarpen dokumentuak (DANP) izapidetzea, baita Estatuaren lurraldearen barruko hondakinen lekualdaketa arautzen duena martxoaren 13ko 180/2015 Errege Dekretua aplikatuz dagozkion dokumentuak ere, edo horren inguruko araudi berria indarrean sartzean, horretarako erabiliz Eusko Jaurlaritzak eskatutako izapidetze elektronikoko sistema (gaur egun, IKS-eeM).

9. Entregatutako materialaren artean objektu baliotsuak agertuz gero, horren berri ematea Mankomunitateari eta Mankomunitatearen esku jartzea.

10. Adjudikaziodunak fakturazioaren oinarri diren kopuruak justifikatu beharko ditu, eta hilero, hilabetea igaro ondoren, instalazio hartzailean egindako entregen xehetasunak aurkeztu beharko ditu, entrega bakoitzeko adieraziz albaran zenbakia, data, ibilgailuaren matrikula, kantitatea (pisu garbia kg-eta), materialaren kalitatea (1. lotea edo 2. lotea) eta jatorrizko instalazio edo garbigunea. Informazio hori bidaltzea hobetze aldera, Mankomunitateak eredu zehatzak ezarri ahalko ditu, paperean zein euskarri informatikoan, eta adjudikaziodunak eredu horiek erabili beharko ditu. Datuetan akatsak edo gabeziak antzemanez gero, edo Mankomunitateak dituen datuekin bat ez badatoz, datuok argitzeko eskatuko da eta, hala badagokio, datuok zuzentzeko eskatuko da. Hileko lana ez da bukatutzat joko harik eta Mankomunitateak onarpena eman arte.

11. Mankomunitateak EEHak gaika biltzeko beste garbigune, zerbitzu edo instalazio batzuk martxan jarriz gero, kontratistak zerbitzu edo instalazio horietan bildutako EEHak ere kudeatu beharko ditu, kontratu honetako baldintza berdinetan.

4. MATERIALEN KUDEAKETA ETA EGIAZTATZEA

Adjudikaziodunak tratamendu egokia emango die kudeatutako materialei, Hondakinei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008ko azaroaren 19ko 2008/98/EE Zuzentarauan ezarritako hierarkia betez, horren bitartez zenbait zuzentarau indargabetu baitziren, baita Ekonomia zirkularrerako hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legea betez ere, hondakinak kudeatzeko honako lehentasun ordena hau ezarri zuena: saihestea, berriz erabiltzeko prestatzea, birziklatzea, beste mota bateko balorizazioa, energetikoki balorizatzea barne, eta suntsitzea, suntsitzea azken aukera izan behar delako, ezarritako ordenan aurreko aukerak baztertu ondoren.

4.1. 1. lotea. Harri hondakin hautatuak

Irizpide hauek beteko dira:

1. Harri izaeradun materialak txikitu egingo dira eta agregakin birziklatu edo eraikuntzako bestelako material bihurtuko dira (material birziklatuen prefabrikatuak edo bestelakoak), merkaturatzeko.

2. Gainerako material birziklagarri edo energetikoki balorizagarriak entregatutako materialetik bereiziko dira, eta birziklatzera energetikoki balorizatzera bideratuko dira.

3. Gaur egun birziklatzeko edo energetikoki balorizatzeko kudeaketa modurik ez daukaten eraikuntza elementu edo materialak baino ez dira bideratuko baimendutako zabortegian suntsitzera.

4.2. 2. lotea. EEH ez arriskutsu nahastuak

Lizitatzaileek 2. loteko materialei aplikatzea hitzeman dituzten kudeaketa eta tratamendua aski justifikatu eta argudiatu beharko dituzte, baita sailkapen eta aukeraketa lanetan lortuko dituzten material edo zatiki motetarako proposatutako helmugak ere, kontratuaren esku jarriko dituzten baliabide eta instalazioetan oinarrituz.

Agregakin birziklatu edo bestelako eraikuntza material bihurtze aldera harri materialak aprobetxatzeko berme hobeak positiboki hartuko dira, baita beste material batzuk birziklatzeko edo energetikoki balorizatzeko eta zabortegian suntsitu beharreko zatikia murrizteko berme hobeak ere, administrazio klausula berezien pleguan ezarritako adjudikazio irizpideekin bat etorriz.

4.3 Materialen kudeaketa egiaztatzea

112/2012 Dekretuan ezarri bezala, EEHen pertsona kudeatzaileek honako betebehar hauek dituzte:

“Jasotako hondakinen kudeaketari buruzko ziurtagiria egin behar diote eraikuntza- eta eraispen-hondakinak ematen dizkien jabeari edo kudeatzaileari. Ziurtagirian, ekoizlea nor den zehaztuko da, eta, hala dagokionean, bai eta jatorrizko obraren lizentzia-zenbakia ere. Bilketa-, biltegiratze-, eskualdatze- edo garraio-lanak bakarrik egiten dituzten kudeatzaileen kasuan, hondakinek jasotako ondoko balorizazio- edo ezabatze-lanei buruzko egiaztagiriak ere eman behar dizkiote hondakinak eman zizkien jabeari edo kudeatzaileari.”

Horretarako, adjudikaziodunak honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du urtero:

1. Behar bezala osatutako adierazpena, III. eranskineko ereduari jarraituz.

2. Helmugako kudeatzaileari kasu bakoitzean dagozkion entrega eta onarpen dokumentuak, material guztien kudeaketaren trazabilitatea ziurtatuz eta adierazpenaren edukia egiazkoa dela egiaztatuz.

Adierazpena eta atxikitako dokumentazioa beranduenez urte bakoitzeko urtarrilaren 31n entregatu beharko da, urtea igaro ondoren, baita hilabeteko (1) epean ere kontratua bukatzen denetik, lehenago aitortu gabeko gainerako zatia bilduz.

Zerbitzuaren jarraipen hobea egite aldera beharrezkotzat joz gero, Mankomunitateak urteko adierazpenean eskatutako informazio ereduak, formatuak eta/edo edukiak aldatu ahalko ditu, baita informazio hori kontratuaren indarraldian zehar edozein unetan eskatu ere; adjudikaziodunak eskatu zaion informazioa entregatu beharko du.

Mankomunitateak adjudikaziodunaren instalazioetan beharrezkotzat jotako ikuskapenak egiteko eskubidea izango du, entregatutako hondakinak kontratuko baldintzen arabera kudeatzen ote diren egiaztatzeko.

Bidenabar, kontratistak urteko adierazpenean aurkeztutako informazioa egiaztatzeko eskubidea izango du Mankomunitateak, baita baimendutako kudeatzailearen jardueraren jarraipenaren inguruan kasuan kasuko ingurumen organoak emandako informazioarekin konparatzeko eskubidea ere. Entregatutako hondakinak kudeatzen jardunbide okerrak antzematea kontratua suntsitzeko arrazoi izango dira.

5. TRANSFERENTZIA PLANTETARAKO BERARIAZKO BALDINTZAK (SOILIK 1. LOTEA)

Kontratu honen ondorioetarako, proposatutako instalazio hartzaileak transferentzia planta gisa hartuko dira bertan ez badira harri materialak birrintzeko lanak egiten, ondoren agregakin birziklatu bihurtzeko.

Transferentzia plantetan 1. loteko materialak (harri izaerako material aukeratuak) irizpide hauen arabera kudeatuko dira:

1. Mankomunitateak edukiontzi betea adjudikaziodunaren instalazioetan utziko du, eta hutsik dagoen edukiontzi bat kargatuko du. Mankomunitateak ezaugarri bereko edukiontzi bat emango dio adjudikaziodunari, aldaketak egiteko. Laugarren puntuan adierazitako gehieneko epea betetzen ez bada, adjudikaziodunak, beharrezkoa izanez gero, aldi baterako edukiontzi propio bat eman beharko du, ezaugarri berekoa, aldaketak egiteko. Edukiontzia bateragarria izan beharko da Mankomunitatearen ibilgailuekin eta garbiguneetako karga nasetako ezaugarriekin.

2. Edukiontzia bere instalazioetan utzi eta gero, adjudikaziodunak hondakinen titulartasuna eskuratuko du.

3. Adjudikaziodunak berariaz debekatuta izango du materiala bere instalazioetan deskargatzea, baita sailkatu, nahastu edo manipulatzea ere.

4. Entregaren ondoren gehienez bi (2) egun balioduneko epean, adjudikaziodunak edukiontzia garraiatuko du, bere izenean, Mankomunitateak entregatu dion gisan, agregakin birziklatu bihurtzeko, besteak beste, harri materialak birrintzeko lanak egingo dituen instalazioetara. Edukiontzia zabortegira bideratzea berariaz debekatzen da.

5. Adjudikaziodunak, hileko datuekin batera, transferentzia plantaren eta birrintze instalazioko operadorearen arteko garraioen Jarraipen eta Kontrol Dokumentuak entregatu dizkio Mankomunitateari, deskribatutako irizpideak zuzen aplikatzen direla egiaztatze aldera, baita entregatutako materialen trazabilitatea ere.

6. Jarraipen eta Kontrol Dokumentu horiek Debagoieneko Mankomunitateko harri hondakin hautatuetarako berariazko onarpen dokumentupean izapidetuko dira, adjudikaziodunak eta birrintze instalazioko operadoreak sinatutakoa, LER 17 01 07 kodearekin; hori ere Mankomunitateari entregatuko zaio.

7. 3.3 klausulan aipatutako urteko adierazpena adjudikaziodunak sinatuta eta zigilatuta aurkeztu beharko da (edo elektronikoki sinatuta), baita birrintze instalazioetako operadoreak sinatuta eta zigilatuta ere; azken horrek klausula horretan adierazitako agiri atxikiak ere aurkeztu beharko ditu.